

## GERNU-INKONTINENTZIARAKO PROTESIAK (ESFINTER ARTIFIZIALA) JARTZEKO BAIMEN INFORMATUA

### CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA PROTESIS PARA INCONTINENCIA URINARIA (ESFINTER ARTIFICIAL)

#### A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:  
..... Data: .....

#### A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:  
..... Fecha: .....

#### B. INFORMAZIOA:

Teknika honen bidez, gernu-ihesak kontrolatu nahi dira eta, horretarako, zorro artifizial bat jarriko da uretraren inguruan, edo, bestela hori estutuko duten beste sistema batzuk. Zorroarekin batera balbula txiki bat eta sabelean jartzen den likido-gordailu txiki bat ere izango dira. Balbula eskorotoan jarriko da gizonetan eta ezpain genitaletan emakumeetan eta pazienteak kontrolatuko du. Ebakuntza anestesia orokorrarekin (horren arriskuen berri anestesia zerbitzukoek emango dizute) edo errakideoarekin egiten da eta, horren ondoren, baliteke uretrako zunda bat eraman behar izatea egun batzuk. Zorroak desaktibatuta egon beharko du zenbait astez.

#### B. INFORMACIÓN:

Mediante esta técnica se trata de corregir los escapes de orina mediante la colocación de un manguito artificial alrededor de la uretra u otros sistemas que comprimen la misma. El manguito se acompaña de una pequeña válvula y un pequeño depósito de líquido que se coloca en el vientre. La válvula se sitúa en la bolsa escrotal en el varón o en los labios genitales en la mujer y es controlada por el paciente. La intervención se hace con anestesia general (de cuyos riesgos le informará el Servicio de Anestesia) o raquídea, y después de la misma, puede tener que llevar sonda uretral unos días. En el caso del manguito ha de mantenerse desactivado durante unas semanas.

#### C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

- Inkontinentzia (jarraitua edo noizbehinkakoa) hobetzea ez lortzea. Molestiak ebakuntzaren inguruan, iraupen aldakorrekoak; baliteke esfinterra kendu behar izatea. Balbula maneiatzeko zaitasuna eta, ondorioz, esfinterraren funtzionamendua aldatzea. Esfinterraren osagarriren batek huts egitea edo horrekiko intolerantzia izatea eta, ondorioz, beste ebakuntza kirurgiko bat egin behar izatea esfinterra konpondu edo kentzeko.
- Zauri kirurgikoaren ondoriozko arazoak: Infekzioa, hainbat larritasun-mailarekin. Zauria irekitzea, eta, ondorioz, beste ebakuntza bat egin behar izatea. Hesteak irtetea, eta, ondorioz, beste ebakuntza bat egin behar izatea. Maskuriaren edo uretraren lesioak, eta gernu-ihesak (aldi baterako edo betiko). Orbain anormalak. Jostura-materialarekiko intolerantzia eta kirurgia bidez erauzi behar izatea.

#### C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

- No conseguir una mejoría de la incontinencia ya sea de forma continua u ocasional. Molestias en la zona operatoria, de duración variable, que pueden requerir la retirada del esfínter. Dificultad de manejo de la válvula que puede alterar el funcionamiento del esfínter. Fallo o intolerancia a alguno de los componentes del esfínter, que obligue a nueva intervención quirúrgica para repararlo o retirar el esfínter.
- Problemas derivados de la herida quirúrgica: Infección en sus diferentes grados de gravedad. Apertura de la herida, que puede necesitar reintervenciones. Salida del paquete intestinal, necesitando reintervención. Lesiones de la vejiga o de la uretra, con fugas de orina temporales o permanentes. Cicatrices anormales. Intolerancia al material de sutura con necesidad de extracción quirúrgica.

- Maskuriko kalkuluak eratzea. Mina sexu-harremanak izatean. Mina pubisean (pubiseko osteitisa).
- Maskuriaren ezegonkortasuna, gernu egiteko larritasun-sentsazioa eragiten duena: Hanketako muskuluen ahultasuna.
- Gertuko nerbioen hantura-erreakzioak.
- Oso ohikoak diren beste konplikazio batzuk: Tronbosisa edo enboliak, hainbat larritasunekoak. Odoljario digestiboak.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

#### D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupadamarkagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

#### E. ARRISCU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertensioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuak eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

#### F. ORDEZKO AUKERAK:

Hona hemen beste aukera batzuk: fisioterapia (Kegel-en ariketak), elektroestimulazioa eta gernuari eustea lortzeko beste teknika batzuk, alegia, substantziak injektatzea uretraren inguruan (periuretralak) edo uretra azpiko sare bat jartzea (eusteko sarea). Nolanahi ere, zure kasuan, aukera terapeutikorik onena gernu-esfinter artifizial bat jartzea da.

- Formación de cálculos vesicales. Dolor al mantener relaciones sexuales. Dolor en el pubis (osteítis de pubis).
- Inestabilidad vesical que provoca sensación de urgencia miccional: Debilidad de los músculos de las piernas.
- Reacciones inflamatorias de los nervios próximos.
- Otras complicaciones extremadamente infrecuentes: Trombosis o embolias de gravedad variable. Hemorragias digestivas.

EL HOSPITAL PONDRA A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

#### D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

#### E. RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

#### F. ALTERNATIVAS:

Otras alternativas son la fisioterapia (ejercicios de Kegel), electroestimulación y otras técnicas para conseguir la continencia urinaria mediante inyección de sustancias alrededor de la uretra (periuretrales) o la colocación de un cabestrillo (malla de sostén) debajo de la uretra, pero en su caso, la mejor opción terapéutica es la colocación de un esfínter urinario artificial.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINI, agintaritza judizialei eta aseguru-erakundeei. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzako osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara:

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/>.

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>.

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Paciente/ El Paciente
Pazientearen izen-abizenak Nombre, dos apellidos .....
<b>Sinadura eta data</b> Firma y fecha .....


**Medikua/EI/La Médico**

**Medikuaren izen-abizenak eta elkartegokide-zk.**

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Legezko Ordezkaria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante legal: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad**

**Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal**

Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

**Sinadura eta data**

Firma y fecha